



2021EKO ZIKLOA URTARRILA-MARTXOA

GARAIPENERA ERAMAN GAITZAKEEN PRESIO BIDE BAKARRA FORMAKUNTZA POLITIKOAREN DA

ROSA LUXEMBURGO

Kalaka trebakuntza orokorrerako zikloa ezaguna da jada gure artean. Trebatzea, ariketa politiko bezala, edukietan sakontzea da, baina baita gaitasunetan ahalduntzea ere, pentsamendu kritikoan sakontzea, (des)eraikitzea eta mugitzea, jakintza eta gorputza hartzea, geure egitea...

Konfinamendu neurriek ezinbestean distantzia fisikoa ezartzen diguten bezala, hausnarketarako tartea ere eskaini ahal digutelakoan gaude. Horregatik, errealitate berri honetara egokitutako zikloaren aukera dakarkizugu. Distantzia fisikoa hausteko ahalegina izango da, talde giroa mantentzeko, elkarrekin egiten eta eraikitzen jarraitzeko. Eta, era berean, hausnarketarako tartea izango da, eguneratzeko, berreraikitzeko, ikastekoa eta haztekoa.

METODOLOGIA

- Aurreko urteetan, ikasturte osoan zehar luzatu den zikloa izan bada ere, aurtun zazpi astetan (bi hilabete eskas) luzatuko den trebakuntza zikloa izango da. Hamalau saio.
- Astero bi saio izango ditugu: lehena, nahitaez, online izango da, eta bigarrena, berriz, zikloa egiten dugun anearen dauden osasun baldintzen arabera, presentziala edo online. Gehienez ordu t'erdiko saioak izango dira.
- Asteko lehen saioan kalakari guztiok elkarrekin parte harte hartuko dugu eta norbaitek konektatzeko aukerarik ez badu, gerora grabazioa ikusteko aukera ere izango du.
- Irakurgaiak edo bestelako materialak ere jarriko ditugu zuen eskura ziklorako sortutako eskola politikoaren gel@n bertan.
- Lan saio batzuetan, aditu eta arituen ekarpenak jasoko ditugu. Beste batzuetan ordea, talde dinamika parte hartzaileak erabiliko ditugu, elkarren artean trebatzeko eta ahalduntzeko.

1- PENTSAMENDU KRITIKOA

Pentsamendu kritikoarekin ekin nahi diogu, inguratzen gaituen hori nola begiratu eta ulertzen dugunak ezinbestean egiten gaituelako. Kuestionamendua, sakontzeko irrika eta begirada zorrotza balio politikoen oinarri izan behar ditugu. Era berean, zikloaren nondik norakoak eta bileren dinamizazioak ere arituko gara.

1 EGUNA: urtarrilak 25-28 astean

3- MUNDU MAILAKO JOERAK

Pandemia baten erdian gaude. Hamarkadetako neoliberalismoaren ondorioak biderkatzen ari dira eta, beraz, aldaketa handien garaian bizi eta borrokatu beharko dugu. Munduko joera orokorrekin gurean izan dezaketen eragina ezagutzea ezinbestekoa da. Nora joan nahi dugun bezain garrantzitsua baita non gauden jakitea.

3 EGUNA: otsailak 8

5- JOERA POLITIKOAK

Egun bizi dugun errealitatea sakon ulertzeko, beharrezkoa izango dugu gure herriko egungo joera politikoei erreparatzea ere. Zein ondorio izan ditu Ipar Euskal Herriaren instituzionalizazioak? Nola dago bertan abertzaletasuna? Zein ondorio izan ditu Nafarroako aldaketa politikoak? Eta EAEn, lehortzen hasi al da Euskal Oasia?

5 EGUNA: otsailak 15

7-ESTRATEGIA POLITIKOAZ

Non gauden galderari erantzun ostean, estrategia politiko, sozial eta sindikalaz aritzeko unea iritsiko da. Zer da egin nahi duguna? Zein (tzu) d(ir)a fase politiko honen helburua(K)? Nola eta zein estrategia, plan edo ildoren bitartez eskuratu nahi ditugu? Zein bitarteko, indargune eta ahulgune ditugu horretarako?

7 EGUNA: otsailak 22

9-MILITANTZIA-DINAMIZAZIOA

Barnera begiratuko dugu, eta gure funtzionatzeko moldeez hausnartu. Pluralean diogu, asko eta ezberdinak baitira, ikusiko dugunez. Militantzia ereduaz, dinamizazio politiko eta sozialaz, gure eguneroko jardunaz eta dinamizazio hausnartu nahi dugu, eraginkorragoa eta osasuntsuagoa izan dadin.

9 EGUNA: martxoak 1

11-NORA GOAZ?

Alperrik da biharko Euskal Herria gaurdanik goitik behera murrizteko eztabaida antzuetan murgiltzea. Baina era berean, lagunduko gaituen iparrorratza ere ezinbestekoa dugu. Nora goaz? Zein baliok gidatzen gaituzte? Nolako Euskal Herria eta jendarte eredu eraiki edo elkar josi nahi dugu?

11 EGUNA: martxoak 9

13-EZINA EKINEZ EGINA

Gai askoren inguruan entzun, hausnartu eta eztabaidatu ostean, praktikatik entzuteko eta ikasteko saioa izango da hau. Nolako udalgintza egiten ari gara? Nolako sindikalizazioa? Nolako gazte mugimendua edota herri mugimendua? Horretan dihardutenei hitza emateko saioa izango da honokoa.

13 EGUNA: martxoak 15

2- NONDIK GATOZ?

Cure historia eta istorio hurbilei begiratu bat emango diegu. Zein da gure historiaren harria? Zerk egin gaitu gaurko hau? Zein dira irakasgai garrantzitsuenak? Zertan gara noizbait izan ginen hori? Finean, "nondik gatoz" galderari erantzun nahi diogu.

2 EGUNA: otsailak 1

4- JOERA SOZIOEKONOMIKOAK

Non gaude? Ezinbestekoa dugu Euskal Herriko egoera sozial eta ekonomikoan sakontzea, eraldatu nahi dugun errealitate hori ulertu nahi badugu. Nolako da egungo ehun ekonomikoak? Zein egoera sozial eta laboral ari da hedatzen? Zahartzen ari al gara? Oasia errealitatea al da? Euskararen herria al da egun gurea?

4 EGUNA: otsailak 11

6-NON GAUDE?

Joera ezberdinei erreparatu ostean, elkarrekin "Non gaude" galderari erantzuteko unea izango da. Ariketa praktiko eta parte hartzailea burutuz joera orokor horiek zein agertoki politiko eta sozial uzten ditugun murrizteko unea izango da. Denon artean egingo dugu prospekzio ariketa kolektiboa.

6 EGUNA: otsailak 17 edo 18

8.- NOLA GOAZ? (I)

Estrategiaz aritzea, maila batean, "Nola goaz" galderari erantzutea ere bada. Aurreko saioan horren berri jasoko dugu, eta honetan, berriz, guk geuk eztabaidatuko dugu estrategia, egin nahi dugun bideaz, beronen nolakotasunaz, topatzen ditugun oztopo, bultzada edo aliatuen inguruan. Hau ere elkarrekin egingo dugu ariketa kolektiboa.

8 EGUNA: otsailak 24 edo 25

10.- NOLA GOAZ? (II)

Aipaturiko jardun politikoak baditu bere baitan hainbat hari, dinamizazio politikoarena eta militantzia ereduena dira horietako batzuk. Nola jarduten dugu gure baitan eta besteekin? Nola militatu? Nola eraiki besteekin batera? Nola egin gaurdanik gure lana beste modu batez? Elkarrekin erantzuteko galderak dira.

10 EGUNA: martxoak 3 edo 4

12-AHOZKO KOMUNIKAZIOA

Jardun politikoaren zutabeetako bat da komunikazioarena, herriarekin egiteak dakarrelako ezinbestean hitz egitea, partekatzea, elkarrizketa, entzutea... Baina nola egiten dugu hau guztia? Nola aritu bileretan, batzarretan edota ekitaldietan? Nola presta gaitzeko?

12 EGUNA: martxoak 10 edo 11

14-AMAIERA SAIOA

Zikloari amaiera emateko unea izango da, elkarrekin baloratzeko, etorriko diren ziklo berrietarako ekarpenak egiteko, trebakuntza denon laguntzaz egiten den zerbitu dela praktikan erakusteko saioa. Azkena? Cure burua trebatzen jarraitzeko ez dago inoiz azken saiorki eta ezta adiorik. Ospatzeko eguna, besterik ez.

14 EGUNA: martxoak 17 edo 18